

PRENTSARAKO OHARRA

18/07/17

Bizkaiko Batzar Nagusiek ez dabe CEBEKen eta Bizkaiko bulegoen sektorearen arteko negoziazioaren ganeko akordiorik lortu

Bulegoen hitzarmenak zentrau dau gaur goizean Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Batzordearen eguneko gai zerrendea. Dana dala, Bizkaiko Batzar Nagusiek ez dabe gai horren inguruko ezelango akordiorik lortu, EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeek batera aurkeztu daben Arauz Besteko Proposamena ez dalako onetsi. Ekimenak ez dau aurrera egin, Foru gobernua eusten daben taldeek ez dabelako bultzatu. Ganera, talde bi horreek zuzenketa-eske bat aurkeztu deusie.

Neskutz Rodríguez Podemos Bizkaiaiko bozeroaleak eta David Lopategi EH Bilduko batzordekideak azaldu daben moduan, Arauz Besteko Proposamena, maiatzean, Eskarretarako eta Herritarrakazko Hartu-Emonetarako Batzordean sektoreko hainbat ordezkari aurkeztu ebezan errebindikazioetatik sortu da. Biek gogoratuazo dabenez, ia 23.000 personak osatzen daben sektorea “Bizkaiko bigarrena da behargin kopuruari jagokonez”, eta bere helburua, 2013tik amaituta dagon Bizkaiko bulegoen sektoreko hitzarmena berreskuratzea da.

Hori dala eta, talde biek hiru puntutan oinarritutako ekimen bat planteau dabe. Lehenengo, Bizkaiko Batzar Nagusiak “bulegoen sektoreko beharginen errebindikazio zuzenen” alde agertuko dira; bigarrenean, “negoziazio mahaian jarteko eta Bizkaiko sektorerako hitzarmena sinatzera eroango dauen alkarrizketa eta akordio prozesua zabaltzeko eskatuko deusie CEBEKi”; eta, bukatzeko, “bere eskumenen barruan”, “bulegoetako beharginen lan baldintzak hobetzeko” behar egiteko eskatuko deusie Bizkaiko Foru Aldundiari.

Lopategiren berbetan, ekimen horren bitartez “ez gabilz negoziazio kolektiboaren esparruan sartzen”, eta “ez dogu ezer baldintzatzen”, egiten dogun gauza bakarra “enpresen emaitza ekonomikoak soldatatan ez islatzeak sortzen deuskun ardurea adieraztea da”. Neskutz Rodríguezek bere aldetik argitu dauenez, “ez gara negoziazioan sartuko, baina aldeak alkarregaz jarrea, akordioak lortzea eta berba egitea bultzatu gura dogu”.

Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek aurkeztutako osoko zuzenketa-eskeak, barriz, adierazoten eban Batzarrek “Negoziazio Kolektiboaren esparrua errespetauz, suspertze ekonomikoaren ondorioak herritar guztiengan eragina izan daien behar egiteko helburua berresten dabela, beharginen lan baldintzak hobetuz”.

Ana Esther Furundarena batzordekide jeltzalearen berbetan, “guri negoziazio kolektiboaren mahaiak behar dauen errespetua erakustea jagoku”. Batzordekideak esan dauenez ados dago etorri ziran personek azaldu eben ideagaz, hau da, hitzarmenik ez egotea “negatiboa dala sektorerako eta gizarte osorako”; horrez gain, gogoratuazo dau negoziazioak alde bi dituala, “eta bien arteko adostasuna beharrezkoa dala uste dogu”.

Modu berean, Juan Otermin batzordekide sozialistaren eretxiz zuzenketa-eskearen testua “hurbilago dago errealidadetik eta aukeretatik”, izan be, “hori ez dalako Batzar Nagusien edo Bizkaiko Foru Aldundiaren esparrua”, “beti, hitzarmen barria ez berrestearen eragin kaltegarriak jasaten dituen personeren laneko baldintzetan eta soldatatan aitatutako hobekuntza hori bultzatzen dogun arren”.

Eduardo Andrés Talde Popularreko batzordekideak eskumenen gaia aitatu dau barriro, “gauza bat, alde biek gura badabe Foru Aldundiak bitartekari lana egitea dala” esanez, “baina ezin daitegun egin administrazio bat negoziazio kolektibo bateko parte izatea inponidutea da”, gehituz. Batzordekide horren berbetan, “hori ez jagokun lekuan sartzea izango litzateke”. Modu berean, Talde Mistoko Arturo Aldecoak kanpoko esku-hartzearen arriskuaz ohartuarazo dau, horrek “azkenean emaitza txarrak izaten ditualako”.

Zuzenketa-eskea onetsi ez dabenez, Arauz Besteko Proposamena ez da onetsi, alde bozkatu daben bakarrak proposamena aurkeztu daben taldeak izan diralako. Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek kontrako botoa emon dabe, eta Talde Popularra eta Talde Mistoa abstenidu egin dira.

ZAINZAILAILEEN ESTATUTUA

Eguneko gai zerrendea Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta berdintasun Foru Diputatuaren agerraldiagaz osatu da. Eneritz de Madariaga Podemos Bizkaia taldeko batzordekideak bere Saitetik Zaintzaileen estatutua egiteko orduan bardintasunaren eta kalidadezko enpleguaren arloei jagokenez egindako ekarpenen ganean egindako galderari erantzunez, Laespadak esan dau berak ez dauela estatutu hori egiteko beharretan parte hartu.

Azaldu dauenez, “Aldundi honek martxan jarten dituan politika guztietan genero ikuspegia apliketearen aldeko apustua egiten dugu”; dana dala, eta orain denpora gitxi onetsi dan Bardintasunerako Foru Araua kontuan izanda, “sail bakotxari jagoko genero ikuspegia apliketea politika publikoen moltsoan”, kasu honetan Gizarte Ekintzako sailari.

NOTA DE PRENSA

17/07/18

Las Juntas Generales de Bizkaia no alcanzan un acuerdo respecto a la negociación entre CEBEK y el sector de oficinas y despachos de Bizkaia

El convenio de oficinas y despachos ha centrado esta mañana el orden del día de la Comisión de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, no obstante las Juntas Generales de Bizkaia no han logrado alcanzar ningún acuerdo al respecto al haber sido rechazada la Proposición No de Norma presentada conjuntamente por EH Bildu y Podemos Bizkaia. La iniciativa no ha logrado salir adelante al no contar con el apoyo de los grupos que sustentan al gobierno foral, quienes además, habían presentado una enmienda.

Tal y como han explicado la portavoz de Podemos Bizkaia, Neskutz Rodríguez, y el apoderado de EH Bildu, David Lopategi, esta Proposición No de Norma parte de las reivindicaciones que varios representantes del sector les trasladaron en mayo en la Comisión de Peticiones y Relaciones a la ciudadanía. Ambos han recordado a los presentes que este sector, formado por cerca de 23.000 personas, es “el segundo con mayor número de trabajadores y trabajadoras de Bizkaia”, y que su objetivo es el de recuperar el convenio en el sector de oficinas y despachos de Bizkaia, decaído desde 2013.

Por esta razón, ambos grupos han planteado una iniciativa sustanciada en tres puntos en la que, en primer lugar, las Juntas Generales de Bizkaia apoyan “las justas reivindicaciones de las personas trabajadoras del sector de oficinas y despachos”; en segundo lugar, instan “a CEBEK a sentarse en la mesa de negociación y abrir un proceso de diálogo y acuerdo que lleve a la firma de un convenio para el sector de Bizkaia”; y por último instan a la Diputación Foral de Bizkaia, “en el ámbito de sus competencias,” a trabajar “por la mejora de las condiciones laborales de las y los trabajadores de oficinas y despachos”.

Según Lopategi, con esta iniciativa “no estamos socavando el ámbito de negociación colectiva” ni “condicionando nada”, sino que “realmente expresamos nuestra preocupación sobre porque los resultados económicos – empresariales no tienen repercusión en los salarios”. Neskutz Rodríguez, por su parte, ha aclarado que “no nos vamos a meter en su negociación pero si podemos hacer que se sienten, que acuerden y dialoguen”.

La enmienda a la totalidad presentada por Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, sin embargo, manifestaba que la institución parlamentaria, “dentro del respeto al ámbito de la Negociación Colectiva, se ratifican en el objetivo de trabajar para que los efectos de la recuperación económica también se trasladen al conjunto de la ciudadanía, mediante la mejora de las condiciones laborales de las personas trabajadoras”.

En palabras de la apoderada nacionalista Ana Esther Furundarena, “a nosotros nos corresponde mostrar el merecido respecto a la mesa de negociación colectiva”. La apoderada ha asegurado compartir con las personas que comparecieron la idea de que la

falta de convenio “es negativa para el sector y la sociedad en conjunto”; asimismo ha recordado que la negociación consta de dos partes, “y pensamos que el consenso entre ambas es necesario”. En la misma línea el apoderado socialista Juan Otermin ha valorado el texto de la enmienda como “más ajustado a la realidad y a las posibilidades”, entendiendo que éste “no es ámbito de las Juntas Generales ni Diputación Foral de Bizkaia” y “fomentando en todo momento que se den esa mejora en las condiciones laborales y salariales de esas personas que están afectadas por la no ratificación del nuevo convenio”.

El apoderado del Grupo Popular, Eduardo Andrés, ha incidido nuevamente en la cuestión de las competencias manifestando que “una cosa es que la Diputación Foral intermedie si las dos partes quieren, pero lo que no podemos hacer es imponer que una administración forme parte una negociación colectiva”. Según el juntero, esto se trataría de “una injerencia”. De igual manera Arturo Aldecoa, portavoz del Grupo Mixto, ha advertido sobre la peligrosidad de una intervención exterior, ya que “trae malos resultados finales”.

Al no aceptar la enmienda, la Proposición No de Norma ha sido rechazada con los únicos votos a favor de los grupos proponentes. Los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han votado en contra, mientras que el Grupo Popular y el Grupo Mixto han optado por la abstención.

ESTATUTO DE PERSONAS CUIDADORAS

El orden del día se ha completado con la comparecencia de la Diputada Foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, Teresa Laespada. Ante la pregunta de la apoderada de Podemos Bizkaia, Eneritz de Madariaga, sobre cuál ha sido el aporte de su departamento en materia de igualdad y empleo público en la elaboración de Estatuto de Personas Cuidadoras, Laespada ha asegurado no haber trabajado en la elaboración de dicho estatuto.

Tal y como ha explicado, desde su departamento “apostamos por aplicar la perspectiva de género en cualquiera de las políticas que esta diputación ponga en marcha”; no obstante, y atendiendo a la Norma Foral de Igualdad recientemente aprobada, “le corresponde a cada departamento aplicar la mirada de género en el conjunto de políticas públicas”, refiriéndose en este caso al departamento de Acción Social.